


Pastorala  Gotañe-Irabarnen

# 'Eüskaldünak Iraultzan' aipatuko ditu pastoralak

Hiru ordu t'erdiz 25 jelkaldi, 260 bertset eta 12 abesti tartekatuko dira gaur Gotañe-Irabarnen


**M**endeetako kate luzean Mia eten gabe iraun duen Zuberoako pastoralak lekuko hartzailea aurkitu du aurten ere, Gotañe-Irabarneko herriak gaur aurkeztuko baitu 'Eüskaldünak Iraultzan' obra. Ipar Euskal Herriak Frantziako Iraultza garaian bizi izandako edo pairatutako gertaerak aipatzen dizkigu Jean Louis Davantek idatzitako pastoral honek.

A. SOKARROS / GOTAÑE

Gaur, arratsaldeko 15.30etan, Irabarneko jauregiaren baratzan, sei hilabeteko etengabeko lan baten emaitza taularatuko dute Gotañe-Irabarneko herritarrek. Jean Louis Davant zuberotar euskaltzainak idatzitako 'Eüskaldünak Iraultzan' obraren antzeztea erabaki zuten ordutik geroz, pastorala honetan partaidé diren 70 aktoreek berrogei ikasketak saio inguru egin dituzte. Hauek nahitaezkoak ziren, beren eguneroko bizian langile, laborari, ikasle edo erretiratu diren herritar arizaleek 25 jelkaldirako taulajokoez gain, pastorala hau osatzen duten 260 bertset eta 12 abestiak ikas ditzaten.

Ikasketa lan tematsu horretan, Jean Pierra Rekalt Errejentak izan dute hilabeteotan akuilatzaile. Honen laguntzaile ibili dira Mixel Etxekopar txülüla jole ezaguna, pastoraleko koruen zuzendari gisa eta Jean Noël Guimon Satan dantzariak eskolatzen. Kantuei dagokienez, azpimarratu behar da hamabietarik zazpi Frantziako Iraultza garaioak direla eta Davantek idatziak diren beste bosten aireak Mixel Etxekoparrek asmatu dituela. Santanen kontuaz, aldiz, hauek ere 11 izango dira, 10 urtetatik 50 urtetara banatuak. Taulajoko eta bertset emaitzen artean, hitz hitzikagarririk adierazteko agertuko diren Satan nagusiak 'Hattan' eta 'Pattan' dira.

**KABARRUS ETA GARAT** Frantziako Iraultza denboran Ipar Euskal Herriaren gora-beherak aipagai izango dituen pastoral honetako bi pertsonaia bakarrik izendatzeko, Baionakoa zen Teresa Kabarrus eta Uztaritzeko semea zen Dominique Garat nabari azalduko dira. Maddi Oihenart izango da Teresa Kabarrus eta Frantziako Elixondorbordak, aldiz, antzeztuko du Garaten rola. Azken urte guztiotan bezala, Luzien Afios eta bere taldearen gain egon da 'Eüskaldünak Iraultzan' pasto-



Frantziako Iraultza denboran Ipar Euskal Herriaren gora-beherak aipagai izango ditu pastoralak. A. S.

raleko musika.

Taulada gainean agertuko diren 70 lagunez gain, Gotañe-Irabarneko beste 120 herritar antolakuntza eta beste gaineratiko lanetan arituko dira. Pastoral baten eraikitzeak behar den lan izugarriaz adibide bakar bat hartzeko, erran dezagun 'Eüskaldünak Iraultzan' agerraldian 180 jauntzi ezberdin badirela. Hauetarik batzuk alokatu egin dituzte baina asko ere herritarrek berek egin dituzte, jarduera horretan zazpi dendari aritu direlarik.

Pastoral lau haizeetara iragartzeko egin izan den irudia Uztaro arte tailerreko Gonzalo Etxebarria margolariaren obra

## Ordutegia

- 10.00: Gotañeko elizan meza, pastoraleko kantariak abestua.
- 11.00: Karrika itzulia, Tzintzarradarekin.
- 11.30: Bazkari aurrekoa.
- 12.30: Bazkaria, Irabarneko jauregiaren baratzean.
- 15.30: 'Eüskaldünak Iraultzan' pastoralaren agerraldia.
- 19.00: 'Muineinak' dantzen enkanteak.
- 20.00: Afarria pastoraleko arizaleekin, Gotañeko kirolgelan.

da. Honen lana aukeratu zuten 'Eüskaldünak Iraultzan' pastoraleko kartel egite lehiaketan parte hartu zuten 17 lagunek egindako 26 obren artean. Marrazki eta beste ikusgaien kontu

honetan jarraituz, pastorala honen ikustera etorriko direnek, Ikerzaleak elkarteak moldatutako 'Zuberoa, Frantziako Iraultza garaian' erakusketa ikusteko aukera izango dute.

## Bostgarren pastorala

A. S. / IRABARNE

'Eüskaldünak Iraultzan', Gotañe-Irabarneko herriak azken bi mendeotan emandako bostgarren pastorala izango da, aurretik 'Hélène de Constantinople' (1834), 'Robert le Diable' (1906), 'Zantxo Azkarra' (1963) eta 'Pette Beretter' (1973) izan baitziren. Emaitza oparo honez gain, Gotañe-Irabarneko euskal kulturaren hazkundera badu beste eskuhartzerik, batez ere aspaldidanik dantzariak baititu. Herrikoak berak ezezik Gotañe-Irabarneko Zuberoako beste dantzari asko ere moldatu ditu, urtero dantza ikastaldiak antolatuz 1977. urteaz geroztik. Bestalde, azken hiru urteotan 'Ohidüratzko txülülen jealdia'



Mixel Etxekopar.

A. S.

antolatu du eta apirilean finkatuak diren egunaldi horiek Okzitania, Katálunia eta Euskal Herriko etorritako txistu joleen topaleku bilakatu dira. Kultur ekin-tza honen bultzatzaile da, hasieratik, Mixel Etxekopar Irabarneko txülülari ospeduna.

Bere herritarren artean nekazari baino langile eta ofizial gehiago dituen 480 biztanleko herri honek euskal kultura hazten du, beraz, baina mende honetan zehar atzerrietatik, hala nola, Aragoi, Portugal edo Biarnotik etorritako hainbat lagun ere harrera egin dio. Zuberoako historian, hala ere, toki nabarmen bat izan dela ez da ahaztu behar, Irabarneko oihanean biltzea ohi baitzuen 'Zuberoako Zinbideak' deitutako herritarren batzarrak.

## PUNTOZ PUNTU

### Protagonistak

'Eüskaldünak Iraultzan' pastoralak hiru protagonista nagusi izango ditu aurten: Jean Louis Davant bere egilea, Jean Pierra Rekalt errejentak eta koruen zuzendari izango den Mixel Etxekopar. Hona hemen, batzuzaren biografia trantza batzuk:

#### ●JEAN LOUIS DAVANT:

'Eüskaldünak Iraultzan' pastoralaren egilea. Lanbidez irakaslea da baina aspaldidanik euskal literatura, hizkuntza eta historia zalea eta aditua da. Bere lan oparoen artean, aipa ditzakegu euskal erakustokiko eta Baionako udal liburutegiko artxiboetan egindako ikerketak. Zuberoako ikastolako gurasoek eta laguntzaileek, 1990. urtean antzeztutako 'Abadia Ürrüstoi' pastoralaren egilea da bera ere. Euskaltzaindiako kide da eta bertan sartzeko hitzaldian, Abadia Ürrüstoi eta Agosti Xaho, Zuberoako seme ospetsuak goraiatu zituen. Egindako idazlanen artean, olerki bilduma batzuek gain 'Histoire du peuple basque' liburua aipagarri da. Ürrüstoi Larrabilen bizi da, 'Aizageria' etxean.

#### ●JEAN PIERRA REKALT:

Pastoraleko Errejentak. Lanbidez mekanika antolatzaile da baina dantzari eta dantza irakas-kuntzari erabat emana dio bere bizi. Azken urteotan, maskarada eta pastorala multzo bat bultzatu du, hala nola Altzao-Lakarrik, 1989. urtean emandako 'Zumalakarregi', Larrainek 1991. urtean agertutako 'Xalbador' eta Santa Grazik iaz antzeztutako 'Santa Kruz'. Altzabehetin bizi da, 'Altabea' etxean.

#### ●MIXEL ETXEKOPAR:

Koruen zuzendaria. Lanbidez irakaslea da baina musikaren maitasunean bizi da egunero. Ohiturazko musiken irakaskuntzarako gaitasun agiria lortua du eta hain ongi jotzen duen txülüla edo xirula irakatsi dio hainbat laguni. Musika konpositore ere bilakatu da eta Zuberoako dantza taldeek gaur egun ematen dituzten koreografia berri gehienak bere eskutik datoz. 'Eüskaldünak Iraultzan' pastoralarentzat bost aire asmatu ditu.